

Iñaki Martínez de Luna

Euskara/familia bikotearen dibortzioa

Familia/euskara bikotea banatzeaz dago. Hainbat urtetan euskara eta familia eskutik helduta ibili badira ere, denbora luzea elkarrekin emandako bikoteen arrisku bera dute, gaur egun: harremana gastatu zaie eta familiak ez du garai batean zuen euskararekiko lilurarik.

Euskara putzu beltzean zegoen garaietan, seme-alaben heziketarako aukera euskaldun bat bultzatzea ausartu ziren familiak. Ikastolen sortzaileak eta ikastolen eskura den-dena jarri zutenak izan ziren familiak: denbora, lana, dirua... Euskararekiko maitasunak itsututa, jokoan zuten gauzarik preziatuena ere utzi zuten ikastolen esku, seme-alaben heziketa alegia.

Urteak joan urteak etorri eta euskarazko hezkuntzaren ardura erakunde publikoen eskuetara igaro zen eta, aldi berean, familiak eremu hori abandonatu zuen. Familiak eta euskarak bizkarra eman zioten elkarri. Leku guztietan ez, ordea. Salbuespena da euskarazko hezkuntza publikoan lekurik ez duen eremua, Nafarroako zenbait eskualde kasu. Halakoetan familiak euskarazko hezkuntza aldarrikatzen eta bultzatzen jarraitzen du, oraindik ere. EAEn, aldiz, euskararen ardura erakunde publikoen eta talde euskaltzaleen eskuetan utzi du familiak, euskarazko hezkuntza barne.

Hain dago familia euskararen kezkatik urrun, non hizkuntza politikek eta programa ofizialek xede-taldetzat hartu behar izan baitute familia bera. Ez da kasualitatea Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak eta EAeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, biek ala biek, familiaren bidezko euskararen transmisiora eta erabilerara bideratzen duten zenbait plan eta programa antolatzen izana. Egoera paradoxikoa da, guztiz: garai bateko euskararen mugimenduko aitzindaria zen familia,



JOSU TXABARRI

hizkuntza politiken objektu pasibo bihurtu zaigu gaur egun.

Euskarak, ordea, badu oraindik familiarren premia handia, eta hirukoitza. Lehenengo beharrizana, jakina, hizkuntzaren transmisioa da, batez ere euskaldun batek eta erdaldun batek edota bi euskaldun berrik osatutako bikoteen kasuetan.

Bigarren premia, seme-alabei hizkuntzarekiko afektua –guraso erdaldunek ere– eta portaera-ereduak –guraso euskaldunek, gehienbat– helaraztea da, txikitako erreferenterik argiena gurasoena da-eta. Guraso euskaldunei dago-kiena, zehatzago esanda, eredu egokia izatea da: euskaldunekin –ume, gazte zein helduak izan– beti euskaraz jardutea. Estatistikak, aldiz, oso bestelakoak dira: seme-alabekin baino askoz urriagoa da senar-emazteen arteko era-

bilera eta hori erreferente ezin okerragoa da ondorengoentzat.

Familiak duen hirugarren zeregina da euskararen agente aktiboa izaten jarraitzea. Garai batean ikastolak bultzatzea familiarren ardura izan zen bezala, gaur egun ere badu zeregin garbia: euskararen erabilerarako baldintza egokiak sortzea, gizarte eremu guztietan. Eginkizun hori guztiona izanik familiarrena ere bada, bestela euskararen transmisioa bultzatzeko garai batean egindako ahalegina hutsaren hurrengo litzatekeelako.

Familiak, ordea, ez daki zeinen zeregin garrantzitsua duen oraindik. Horregatik, familiak –beste gizarte sektore askok bezala– heziketa soziolinguistikoaren premia du. Ikaskuntza hori burutu eta gero eta duen erantzukizunaz jabetuta, familiak bere egingo ditu arestian aipatutako hiru funtzioak. Horrela egin ezean familiarren eta euskararen arteko dibortzioak ez du atzera bueltarik izango eta kaltetuenak, dibortzio askotan bezala, ondorengoak lirarteke. ■

Euskarak badu oraindik familiarren premia handia, eta hirukoitza. Lehenengo beharrizana, jakina, hizkuntzaren transmisioa da, batez ere euskaldun batek eta erdaldun batek edota bi euskaldun berrik osatutako bikoteen kasuetan